



**ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOKO SEKTORE
PUBLIKOKO ORDEZKARIEN ETA
KARGUDUN PUBLIKOEN ETIKA ETA
JOKABIDE KODEA BETE DEN
IKUSKATZEKO URTEKO TXOSTENA.**

**INFORME ANUAL DE SUPERVISIÓN
DEL CUMPLIMIENTO DEL CÓDIGO
ÉTICO Y DE CONDUCTA DE LOS
CARGOS PÚBLICOS Y
REPRESENTANTES DEL SECTOR
PÚBLICO DEL TERRITORIO
HISTÓRICO DE ÁLAVA.**

Administrazio Publikoen gobernantza eta administrazio onari buruzko programak garatzeko, irailaren 3ko Foru Gobernu Kontseiluaren 477/2015 Erabakia dela bide, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargu publikodunen eta ordezkarien gobernu onerako kode etikoa onetsi zen, gobernu ona lortzen laguntzeko. Gobernu ona printzipio etikoetan oinarritzen da eta ahaleginak egiten ditu herritarrek hobeto ezagut ditzaten interes orokorreko kudeaketa beren gain hartzen duten pertsonen betebeharrak.

En desarrollo de los programas de gobernanza y buena administración de las Administraciones Públicas, mediante Acuerdo 477/2015, del Consejo de Gobierno Foral de 3 de septiembre, se aprobó el Código de Ética y Buen Gobierno de los cargos públicos y representantes del sector público del Territorio Histórico de Álava, con el objetivo de ayudar al logro de un buen gobierno basado en principios éticos y de que la ciudadanía tenga un mayor conocimiento de las obligaciones de las personas que tienen a su cargo la gestión del interés general.

Hala, bada, kode hori zaindu eta ebaluatzeko mekanismo eraginkor bat ezartzearen, zazpigarren atalaren bidez Arabako Lurralde Historikoaren sektore publikoko gobernukideen eta goi kargudunen Étika Publikoko Batzordea (hemendik aurrera EPB) sortu zen. Batzorde horren eginkizuna da kontsultei erantzutea eta Etikaren eta Gobernu Onaren Kodea betetzea sustatu eta hura betetzen dela ikuskatzea eta hura hobetzea.

Así, al objeto de establecer un mecanismo eficaz de seguimiento y evaluación de dicho Código, su apartado séptimo creó la Comisión de Ética Pública de los miembros del Gobierno y altos cargos del sector público foral del Territorio Histórico, en adelante CEP, órgano encargado de atender las consultas, impulsar y supervisar el cumplimiento y mejora del Código de Ética y Buen Gobierno.

Ondoren, Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailearen 11ko 10/2018 Foru Arauaren 19.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko, 2023ko urriaren 24an, Foru Gobernu Kontseiluak Gobernu Onerako Kode Etiko (GOKE) berri bat onetsi zuen. Kode horrek, funtsean aurrekoaren edukiari eutsiz, zenbait alderdi berrikusi eta eguneratu zituen, kode horrekiko atxikipena indartzeko.

Posteriormente, al objeto de dar cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 19.1 de la Norma Foral 10/2018, de 11 de julio, reguladora del ejercicio del cargo público foral, con fecha 24 de octubre de 2023, el Consejo de Gobierno Foral aprobó un nuevo Código de Ética y Buen Gobierno (CEBG) que, manteniendo sustancialmente el contenido del anterior, revisó y actualizó aspectos para reforzar la adhesión al mismo.





Aurreko txostena ia orain dela urtebete eman zen, hain zuzen ere, 2025eko otsailaren 6an, eta kontuan hartuta EPBri dagokiola batzordearen urteko jardueraren eta Etikaren eta Gobernu Onaren Kodearen betetze mailaren ikuskapenaren inguruko txostena prestatzea, honako agiri hau egin da, urtean gauzatutako jardueren kontu emateko. Agiria Foru Gobernu Kontseiluari helaraziko zaio, organo horrek ezagut dezan eta argitara dezan.

Txosten honek urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldia hartzen du, eta honako hauek aztertzen dira: Kode Etikoa betetzen den, printzipio etikoen aurkako jokabideak hautematen diren eta gobernuan kultura etikoa sendotzen laguntzen duten prestakuntza eta sentsibilizazio jarduerak garatzen diren.

Hala, 2025ean egindako jarduketei buruzko lehenengo hurbilketa bat egiteko, komeni da adieraztea EPBk bi ebazpen eman zituela.

Haietako baten arrazoia da eraginpeko pertsonaren jakinarazpena, zeinaren bidez jakinarazten baitzaio instrukzio epaitegi batek ikertu gisa deitu duela beste administrazio publiko batean kargu bat zuenean egindako jarduketengatik. Horri buruz, batzorde honek 3/2023 Ebazpenean hartutako konponbidea errepikatu zuen; hau da, bidezkoa dela kargu publikodun bat kautelaz kargugabetzea ahozko epaiketa hastea erabakitzen duen autoa ematen den unean, ez lehenago.

Urriaren 24ko bilkuran emandako bigarren ebazpena hauexei buruzkoa da: kargu publikodun batek sare sozial batean hitz

Habiendo transcurrido prácticamente un año desde la emisión del anterior informe, el 6 de febrero de 2025, y teniendo en cuenta que a la CEP le corresponde la elaboración de un informe anual de su actividad y de la supervisión del cumplimiento del Código de Ética y Buen Gobierno, se emite el presente como un documento de rendición de cuentas de las tareas acometidas en este año, documento que se trasladará al Consejo de Gobierno Foral para su conocimiento y publicación.

El presente informe abarca el periodo comprendido entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de año, siendo objeto de análisis el cumplimiento del Código Ético, la detección de posibles conductas contrarias a los principios éticos y el desarrollo de actividades de formación y sensibilización que contribuyen a la consolidación de una cultura ética en el seno del gobierno.

Así, para una primera aproximación sobre las actuaciones realizadas durante el año 2025, conviene indicar que la CEP adoptó dos resoluciones.

Una de ellas trae por causa comunicación de persona afectada, informando de la citación como investigado por un juzgado de instrucción, con motivo de actuaciones realizadas cuando ostentaba un cargo en otra administración pública. Sobre ello esta Comisión reprodujo la solución adoptada en su Resolución 3/2023, esto es, la procedencia del cese cautelar de un cargo público en el momento en que se dicte auto acordando la apertura del juicio oral, no antes.

La segunda resolución, adoptada en sesión de 24 de octubre, versa sobre consulta del empleo, por parte de cargo público, de



Comisión de Ética Pública de los miembros del Gobierno y altos cargos del sector público foral del Territorio Histórico de Álava

iraingarri bat erabiltzearen gaineko kontsulta bat, hura handik gutxira kentzea eta barkamena eskatzea, bai eta erantzukizuna bere gain hartzea ere. EPBk aztertu beharrekoa aztertu eta pentsatu beharrekoa pentsatu ondoren, nola argitalpena denbora gutxi egon zen argitaratuta, egileak erantzukizuna bere gain hartu zuen, publikoki eta pribatuki atzera egin zuen eta batzorde honi gertakarien berri eman zion, kontsultagilearen jokabidea gertakari isolatutzat jo zuen, erakundearen irudiarentzat ondorio kaltegarri larririk gabea.

Bestalde, kontuan hartuta zenbat urte igaro diren EPB sortu zenetik, hark egokitzen jotzen du 2015. urtean abiatu zenetik jorrotutako gaien bilakaera erakustea. Hartara:

URTEA	KONTSULTA	SALAKETA	GUZTIRA
2015	-	-	0
2016	1	-	1
2017	-	-	0
2018	-	-	0
2019	-	-	0
2020	1	-	1
2021	-	-	0
2022	-	1	1
2023	2	1	3
2024	-	-	0
2025	2	-	2
	6	2	8

Taula hori ikusita, emandako ebazpen kopuruari dagokionez, deigarria da kargu publikodunek egindako kontsulten ehunekoa, salaketekin edo kexekin alderatuta. Datu horrek erakusten du foru kargu publikodunek konpromisoa dutela GOKEn jasotako balio etikoekin eta

término ofensivo en una red social, de su eliminación poco tiempo después, de la solicitud de disculpas así como de la asunción de su responsabilidad. Tras análisis y deliberación, la CEP, ante la brevedad en el tiempo de permanencia de la publicación, la asunción de responsabilidad, la retractación pública y privada la puesta en conocimiento formal de los hechos a esta Comisión, calificó la conducta del consultante como incidente aislado, carente de efectos lesivos graves para la imagen de la institución.

En otro orden de cosas, teniendo en cuenta los años transcurridos desde la creación de la CEP, ésta considera oportuno mostrar la evolución de los asuntos tratados desde comenzó su andadura en el año 2015. Así:

AÑO	CONSULTA	DENUNCIA	TOTAL
2015	-	-	0
2016	1	-	1
2017	-	-	0
2018	-	-	0
2019	-	-	0
2020	1	-	1
2021	-	-	0
2022	-	1	1
2023	2	1	3
2024	-	-	0
2025	2	-	2
	6	2	8

A la vista de esta tabla, respecto al número de resoluciones adoptadas, llama la atención el porcentaje de consultas de cargos públicos en comparación con las denuncias o quejas, dato que pone de manifiesto el compromiso de los cargos públicos forales con los valores éticos y orientaciones de conducta recogidas en el



jokabide orientabideekin, integritate estandar altuenen arabera.

Bestalde, batzorde honek jasota utzi nahi du beste hiru pertsona sartu direla GOKEren aplikazio eremura, eta egiaztatu da haien ondasunen eta interesen aitorpenak argitaratu direla, bai eta kargu publikoan jarduteko bateragarritasun adierazpenak ere, eta ez dela gorabeherarik ikusi haietan.

Azkenik, Etika Publikoaren Batzordeko kideek adierazi nahi dute nahiz eta kodeak eta bertan jasotako jarraipen eta ebaluazio sistemak ez bermatu goi-mailako foru kargudunek ez dituztela erabat desagerraraziko etikoki gaitzesteko moduko jokabideak, gaur egungo kodean jasorik dagoen integritate sistemak jokabide estandar etiko handia ezartzen du kargu publikodun horientzat, eta haien jokabideak gainbegiratzeko mekanismo objektibo bat ezartzen du.

Horregatik, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargudun publikoen eta ordezkarien Etikaren eta Gobernu Onaren Kodean jasota dauden **printzipio etiko eta jokabidezkoen betetze mailari dagokionez**, eta aipatutako kodearen zortzigarren apartatuko 3. puntuan xedatutakoa betetzeko asmoz, honako hauek adierazten ditugu:

Lehenengoa.- Gobernuko kideen eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko goi-mailako kargudunen Etika Publikorako Batzordeak ez daki 2025ean kargu horiek, salbu eta lehen aipatutako sare sozialetako egitate isolatua, ez dituztenik zorrotz bete beren jardunean aplikatzekoak

CEBG conforme a los más altos estándares de integridad.

Por otro lado, esta Comisión quiere dejar constancia de la incorporación de tres nuevas personas al ámbito de aplicación del CEBG, habiéndose comprobado la publicación de sus declaraciones de bienes e intereses así como de las correspondientes declaraciones de compatibilidad con el cargo público, sin que se hayan detectado incidencias en las mismas.

Por último, los integrantes de la Comisión de Ética Pública desean poner de manifiesto que si bien el Código y el sistema de seguimiento y evaluación previstos en él no pueden asegurar la completa eliminación de conductas éticamente reprochables por parte de los altos cargos forales, el sistema de integridad establecido en el vigente Código determina un alto estándar ético de actuación para estos cargos públicos y establece un mecanismo objetivo para la supervisión de sus comportamientos.

Es por ello que, en cuanto al **grado de cumplimiento de los principios éticos y de conducta** contenidos en el Código de Ética y Buen Gobierno de los cargos públicos y representantes del sector público del Territorio Histórico de Álava y a los efectos de dar cumplimiento al mandato contenido tanto en punto 3 del apartado octavo del mencionado Código, se ponen de manifiesto los siguientes extremos:

Primero.- La Comisión de Ética Pública de los miembros del Gobierno y altos cargos del sector público del Territorio Histórico de Álava no tiene constancia de que en el año 2025, salvo el hecho aislado de redes sociales comentado anteriormente, dichos cargos no hayan observado rigurosamente en el



zaizkien Etika eta Gobernu Onaren Kodean jasotako printzipio etikoak eta jokabide printzipioak.

Bigarrena.- Gobernu onaren neurriak eta gastu publikoari eusteko neurriak eta austeritateari dagozkionak betez, ez da egiaztatu era ezegokian erabili direnik Foru Gobernuaren Kontseiluko kideek eta goi kargudunek bere esku dituzten Arabako Foru Aldundiaren jabetzako ondasun eta zerbitzuak.

Ondorioz, 2025. urtean, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargu publikodunen eta ordezkarien Etika eta Gobernu Onaren Kodean jasotako aurreikuspenei dagokienez, esan daiteke, batzorde honek urriaren 24ko bilkuran aztertutako gertakaria izan ezik, kode horretan jasotako aginduek eta jarduketa printzipioek ez dutela eraginik izan Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargu publikodunen eta ordezkarien jardunean, haiek interes orokorraren zerbitzura jardun eta aipatutako kodeak eta ordenamendu juridikoak Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren jardueran nagusi izan behar dutela ezartzen duten printzipioak bete baitituzte.

Edonola ere, integritatearen kultura finkatzeko eta azpiegitura etikoak indartzeko, Batzordeak Arabako Foru Aldundiari gomendatzen dio Kode Etikoa aktiboki zabal dezala, hura aplikatzekoa zaien pertsona guztiek eskura eta erraz lortzeko moduan dutela ziurtatuz, bai eta erakundeen arteko komunikazioa bultzatuz.

desempeño de su actuación los principios éticos y de conducta contemplados en el Código de Ética y Buen Gobierno que les es de aplicación.

Segundo.- En cumplimiento de las medidas de buen gobierno y contención y austeridad del gasto público, no se ha constatado un uso inapropiado de los bienes y servicios, propiedad de la Diputación Foral de Álava, que los miembros del Consejo de Gobierno Foral y sus altos cargos tienen a su disposición

En conclusión, en el año 2025, en relación con las previsiones contempladas en el Código de Ética y Buen Gobierno de los cargos públicos y representantes del sector público de este Territorio Histórico de Álava, puede afirmarse que, salvo el episodio analizado por esta Comisión en sesión de 24 de octubre, los mandatos y principios de actuación previstos en ese Código no han tenido incidencias en el ejercicio de los cargos públicos y representantes del sector público del Territorio Histórico de Álava, actuando estos desde el servicio al interés general y con observancia de los principios que el mencionado Código y el ordenamiento jurídico establecen que deben presidir la actividad del sector público del Territorio Histórico alavés.

No obstante lo anterior, con el fin de impulsar la consolidación de una cultura de integridad y fortalecer las infraestructuras éticas, la Comisión recomienda a la Diputación Foral de Álava la divulgación activa del Código Ético, asegurando su disponibilidad y fácil acceso para todas las personas a las que les es de aplicación, así



dezala ere, funtzio publikoaren garapenean balio eta printzipio etikoak betetzeak duen garrantziaren gainean.

Era berean, egokitzat jotzen du foru kargu eta ordezkari guztientzako etengabeko prestakuntza programak sustatzea, arreta berezia eskainiz interes gatazkei, integritateari, gardentasunari, erantzukizunari eta abstentzio eta errekusazio mekanismoei buruzko edukiak eguneratzeari. Prestakuntza, betiere, eskuragarria, aldizkakoa eta araudiaren bilakaerara eta etika publikoko jardunbide egokietara egokitua izan behar da, adibide praktikoak eta kasu errealen simulazioak integratuz, arrisku etikoen identifikazioa eta prebentzio proaktiboa indartzeko.

Etika eta Gobernu Onaren Kodea aldizka berrikustea gomendatzen da, esplizituki jasotzeko etika publikoaren arloan sortzen ari diren erronkak, hala nola ingurune konplexuetako interes gatazken kudeaketa, aktibo digitalen tratamendua eta teknologia berrien erabilera. Hori guztia, ahaztu gabe beste administrazio publiko batzuekin lankidetzan jardutea, esperientzia trukeak egitea eta integritate instituzionalaren sistema hobetzen lagun dezaketen sareetan parte hartzea.

Azkenik, batzorde honek proposatzen du kultura etikoa sustatzea lidergotik bertatik abiatuta, foru kargu publikodunak animatuz beren eginkizuna eredugarritasunez, integritatez eta zerbitzu publikorako dedikazio osoz betetzera, talde lana, berdinen arteko errespetua eta jarrera

como favorecer la comunicación institucional sobre la importancia del cumplimiento de los valores y principios éticos en el desarrollo de la función pública.

Asimismo, estima oportuno el fomento de programas de formación continua para todos los cargos y representantes forales, prestando especial atención a la actualización de contenidos sobre conflictos de interés, integridad, transparencia, responsabilidad y mecanismos de abstención y recusación. Formación, en todo caso, accesible, periódica y adaptada a la evolución de la normativa y las mejores prácticas en ética pública, integrando ejemplos prácticos y simulaciones de casos reales para reforzar la identificación y prevención proactiva de riesgos éticos.

Y se aconseja llevar a cabo una revisión periódica del Código Ético y de Buen Gobierno que contemple explícitamente los retos emergentes en materia de ética pública, tales como la gestión de los conflictos de intereses en entornos complejos, el tratamiento de los activos digitales y la utilización de nuevas tecnologías. Todo ello sin olvidar posibles colaboraciones con otras administraciones públicas, intercambios de experiencias así como participación en redes que puedan contribuir a la mejora del sistema de integridad institucional.

Por último, esta Comisión propone promover una cultura ética desde el propio liderazgo, alentando a los cargos públicos forales a ejercer su función con ejemplaridad, integridad y plena dedicación al servicio público, impulsando el trabajo en equipo, el respeto entre iguales y la actitud proactiva en la identificación y solución de



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko gobernukideen eta goi kargudunen Étika Publikoaren Batzordea

Comisión de Ética Pública de los miembros del Gobierno y altos cargos del sector público foral del Territorio Histórico de Álava

proaktiboa sustatuz balizko arrisku etikoak identifikatzean eta konpontzean. Animatu nahi da arduradun gorenak jokabideen egokitasunari buruzko zaintza aktiboa egin dezatela eta komunikazio horizontala eta bertikala erraztu dezatela erakundearen barruan.

potenciales riesgos éticos. Se anima a los máximos responsables a ejercer una vigilancia activa sobre la adecuación de las conductas y a facilitar la comunicación horizontal y vertical en el seno de la organización.

Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 15ea.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de enero de 2026.